

# Antxiñako fotografixia



Joxe Ferdandezek itxittako argazkixa

## 1953ko uraundixak

**B**errogei urte bete dira aurtengo urrixaren 15ian. Orduan be ikaragarritzko eurixak egin zittuan; idolaz, eten barik bota eta bota. Urak izugarri hazi ziran eta erreka ondoko etxe, baserri, errota, fabrika, ortu eta soruak kalte haundixak izan zittuain. Dana dala, hemen baiño okerrago be ibilli ziran Gipuzkuako leku askotan: **Bergara, Mendaro, Tolosa, Andoain** eta abarretan. Hilddakuak be ugari: **Iraeta** eta **Zestua** bittartian autobusa eruan eben **Urola** errekiak eta banaka batzuk bakarrik lortu eben bizirik urtetia.

Fotografixa honetan **San Pedroko** zubi famaua ikusi geinke. Ipuñetan esaten dan lez, jentillak gau batian jaso ebeña. Gerra ostian, Olaterako kamiñua berriztaitteko obrak egin ziranian (1941-43), zubixau

zabaldu egin eben eta orain dakon itxuriarekin geldittu zan. Urte honetako urramilla izango zan, barriztau ondoren, sufridu bihar izan eben lehenengo eraso inportantia. Zoritxarrez, harrezkero be ezta urbizirik falta izan **Kale-errekoa** eta **Artixa-errekoa** alkarketan diran **Torreko** zubipe horretan: gogorrenak 1983ko Abuztukua eta igazko San Juan bezperakua.

Atzian agiri diran lehenengo bi etxiak **San Pedroko** kalejakuak dittugu, orain dala ehun bat urte puntapaixa-fabrikia egin zanian, langillientzat jasotakuak. Osteko etxe kuadrada, barriz, **Etxandi** baserrixa, aldizkari honetako beste lan batian agerketan dan moduan, auzoko eraikuntzarik zaharrenetakua.

J.E